

IRURI

22 urte

"Legea izan arren,
ez da ona edo
txarra denaren
aldatu ezinezko
arau bat"



LIBE


21 urte

"Emakumeek beldurra
edukitzeko, errudun
sentitzeko eta
gizonen azpitik
sentitzeko
egituratuta dago
gizartea"

AIMAR

19 urte

"Boterea,
azken finean,
erabakitzea da,
modu aske eta
kritiko batean
erabakitzea"



NETSANET

18 urte

"Ez da posible
boteretik gabeko
mundu bat.
Beharrezkoa da
boterea edukitzea
entzuna izateko"



UNAI

22 urte

"Boteretsu sentitzen
naiz kalera ateratzen
naizen bakoitzean eta
disidentzia naizen
heinean"



GERUZAK

Boterearen gaiak zer galdera
sortzen dizkizu?

Boterea hitza entzun eta zer
irudi datorkizu burura?

{ Boterea hitza
entzun eta zer
leku bururatzen
zaizu? }

Zer da BOTEREA zuretzat?

Pertsona
boteredun bat
zer-nolakoa da
zure ustez?

Eman zure
ustez boteredun
diren hiru
pertsonek izenak.

ZERIKUSIRIK BA
AL DUTE BERE
BOTEREAN
BERE:

ADINAK?

GORPUTZAK?

AZAL KOLOREAK?

HARREMANETZKO MODURAK?

BERE BURUAZ DUEN IRITZIAK?

GENEROAK?

IDENTITATE SEXUALAK?

LANBIDEAK?

EKITEKO MODURAK?

BIZI DEN LEKURAK?

PENTSATZEKO MODURAK?

HITZ EGITEN DUEN HIZKUNTZAK?

MUNDUAN EGOTEKO MODURAK?

ETA PERTSONA
BOTEREGABE
BATENGAN ERE BA
AL DUTE
ZERIKUSIRIK?

Leku batean botereduna dena,
denean eta beti al da botereduna? Eta
boteregabea dena, beti da boteregabea? -

Boterea beti eta edonon al dago? Ala leku batzuetan kontzentratzen da gehiago eta bereziki?

Ba ote dago boteretik gabeko harremanik, espaziorik edo ekimenik?

Boteretik gabeko mundu bat posible ote? Desiragarria al da?

Boterea izatea txarra ala ona da?

BOTEREA, zergatik eta zertarako?

Ze egoeretan esango zenuke:

o Boterea txarra da...

.....

.....


o Boterea ona da...

.....

.....

Boterea banatzeko ereduak anitzak dira. Eredu proposamen hauetatik zuri zein iruditzen zaizu egokiena? Zuk nola antolatuko zenituzke hamar puxtarriak?

NOLA BANATUKO
ZENUKE BOTEREA?



Zuk boterarik
nahi al duzu?

Zergatik?

Zertarako?

Boterarik ez
dugunean zer
gertatzen da?

Boterea
dugunean zer
gertatzen da?

Sentitu duzu
inoiz boterea zure kontra
erabili izan dela; zu
zapaldu, isildu, gutxietsi,
umiliatu edo
lotsarazteko?

NOIZ?
NORK?

Zu
botereduna
zara? Ala
boteregabea?

ZER ARRAZOI EDO
EZAUGARRIRENGATIK?

Eta boterea
zure mesedetan
inork erabili al
du? Adibiderik
emango?

Zuk erabili izan al duzu boterea inoren edo zerbaiten ALDE? Eta KONTRA?

NOIZ	NON	NOREN-ZEREN	ALDE	KONTRA
			X	
				X
				X
			X	

Araua, legea
beti eta berez
da **ONA?**

Araua, legea
beti da **BETE
BEHARREKOA?**

Gizarteko
legeekin,
eta zure
eguneroko
bizitzako
arauekin,
orokorrean,
ados zaude?

GIZARTEKO ETA
EGUNEROKO ARAUAK
ERRAZ ETA EROSO
BETETZEN AL
DITUZU?



ERABAKIMENA
BAZENU
ALDATUKO
ZENITUZKE
ARAU BATZUK?
ADIBIDERIK?

BOTEREA ZER ARAU DITU?

Zuk inoiz
hautsi
duzu?

Eta zer
gertatu
da?

Legea hausten
duenak
zigortua izan
behar al du?


Legeak zigorra
behar du?
**ZERGATIK?
BETI?**

Aipatu gizartean,
etxean, eskolan,
lanean...
betearazten
dizuten lege edo
arau txar bat.

Zer gertatzen
da legea edo
araua hausten
denean?

Gizarteko arauak
diziplinatu egiten
al gaituzte
bizitzan zehar?

Boterea
disziplinatzailea
al da?



Gure harreman guztiak botereak zeharkatzen ditu, gizakion artekoak, munduarekin ditugunak eta gure buruarekin eta gure gorputzarekin ditugunak ere bai.



FAMILIAN

ESKOLA BARRIAN

ADIN DESBERDINEKOEN ARTEAN





LANEAN

LAGUN ARTEAN

BIKOTE HARREMANEAN

IZAKI EZ-GIZATIAURREKIN

GIZON ETA EMAKUMEEN ARTEAN



Batzuk boteretzeko
beste batzuk
desboteretzea
nahitaezkoa al da?

Nor boteretu beharko
litzateke?

- o
- o
- o
- o

Eta nor desboteretu?

- o
- o
- o
- o

Eta batzuk
BOTERETU
eta beste batzuk
DESBOTERETUKO
bagina?

Sentitu al
zara inoiz
boteretuta?

Nola egiten da
boteretzeko
ariketa?

BOTERETZEKO
MENDEKO EGITEN
ZAITVENA DESIKASTE
BEHARREZKO DA?

ZUK ZER
DESIKASI
DUZU?

ZER NAHIKO
ZENUKE
DESIKASI?

ZER ARAU
SOZIAL
HAUTSI?

Eta desboteretzeko
pausoak berriz
nola ematen dira?
Egin duzu inoiz
ariketa?



Zertan boteretu beharko zinateke zu?
Eta zertan desboteretu?

BOTERETU		DESBOTERETU	

Boteretuta
egotea, eta
boteretsua
izatea gauza
bera al dira?

Noiz sentitu zara BOTERETSU?

“

Sentitu naiz boteretsu oholtza gainean, mikrofono bat aurrean dudanean, eta badakidanean jendea entzuten dagoela, eta ez daukadala ahotsa altxatu beharrik entzuna izateko.

“

Boterea bizitzarekin identifika daiteke neurri batean: umeak sekulako euforia sentitzen du gurasoen eskua askatu eta bere kabuz ibiltzeko boterea sumatzen duenean, irakurtzen eta idazten ikasten dugunean ere boteretsu sentitu ohi gara...

“

Boteretsu sentitzen naiz kalera ateratzen naizen bakoitzean, disidentzia naizen heinean, sistemari planto egiten diodanean, eta aurrerapauso bakoitzean.

Eta zu, noiz
sentitu zara
boteretsu?

Eta zer sentimendu
sorrarazi dizu
boteretsu sentitzeak?

Idatzi eta
nahi baduzu,
ondoren,
partekatu
zure
ingurukoekin.